

Herrigintza parte-hartzailerako gunea Urretxun

Urretxuko Irimo lantegia zena eta industrialde osoa berreskuratzeko prozesua abiatu dute herritarrek. Herrigintza ulertzeko eredu jasangarri eta parte-hartzailea oinarri, bilerak eta eztabaidak izan dituzte. Helburua, bertako ekintza kulturala eta ekonomikoa suspertzea.

| MARTIN VICIOSO |

URRETXURA Legazpitik sartzean, kasik hutsik den industrialdea ikus genezake ezker aldean. Guneari Irimo deitzen diote herritarrek, izan ere, bertan dago urte askoan Urretxuko enpresa garrantzitsuenetarikoa izan denaren egoitza. Hura eraberritzea ez da kontu samurra. Azkeneko hamabost urteetan, udal gobernu talde ezberdinek mota askotako proiektuak hartu dituzte kontuan, etxebizitzak eraikitzen merkataritzagunea sortzeraino. Bertako arkitekto talde baten proposamenari jarraituz eta hiri-gintzarako eredu jasangarria eta parte-hartzailea bilatuz, prozesu berria ireki da.

Lehenik, arlo anitzeko pertsonak eta eragileak bildu zituzten helburu estrategikoak definitzeko. Guztiz birrindu gabe, pabilioiei erabilera ematea posible zela ondorioztatu zuten. European eta Euskal Herrian bertan antzeko proiektuak badirela ikusi zuten, baina Irimoren berezitasunak aztertu behar zirela argi izan zuten lehen momentutik. Besteak beste, guneak duen kutsadura eta 7,2 kilometro koadroko espazio luzea dela.

Hasierako bileretan lortutako ondorio nagusietakoa da ekintza kultural eta ekonomikoetarako aproposa dela Irimo. Herritarren beharrak eta Urretxuk eta eskualdeak dituen gabeziak ahal den neurrian asetzen saiatzea da asmoa.

Ibon Salaberria koordinatzaileak adierazi duenez, jendea erakartzea da orain lehentasuna, bai kopuruaren aldetik, bai aniztasunaren aldetik ere. Horretarako, komunikazioa funtsezkoa da. Herritar askok ez du Irimo gunea ezagutzen. Industrialde garrantzitsua izan zela badakite, baina gaur egungo egoera, nolabait, arrotza zaie. Hori dela-eta, bertara bisitak antolatu zituzten udaran, gunea erakusteko eta proiektua aurkezteko. 50 lagun inguru gerturatu ziren. Irimo Foroa izenpean, hitzaldiak eta eztabaidak ere antolatu dituzte. Batetik proiektua ezagutarazteko, eta beste-



ASIER LARRAZA

Irimo gunea biziberritzeko lan handia dute aurretik herritarrek, batez ere kutsadura maila jaisteko eta hondakinak jasotzeko.

tik, antzeko esperientzietatik eta adituen ekarpenengatik ideia berriak landu ahal izateko. Abenduan bilera gehiago izango dituzte auzolan jardunaldiak prestatzeko.

Ekarpenak Europatik

Arkitekto gazteentzako *European* lehiaketara aurkeztu zuten proiektua. 2013ko gaia "hiri moldagarria" zela ikusita, egitasmoak lekua izan zezakeela pentsatu zuten. Irabazleentako bat izan dira, eta ondorioz, Europako arkitekto gazteen ekarpenak jasoko dituzte. Aberasgarria izateaz gain, kanpora begirako proiektuak emango diela azpimarratu dute kideek.

Proiektu garestia da Irimo. Lan handia dute aurretik, batez ere kutsadura maila jaisteko eta hondakinak jasotzeko. Gipuzkoako Diputazioak eta Urretxuko Udalak emandako dirulaguntzei esker osatu dute aurrekontua, baina diru gehiago beharko dutela aurreikusten dute. Eguno testuinguru ekonomikoan finantziarazioa lortzea zaila dela badakiten arren, Urretxu eraldatzeko gogoak ematen die aurrera jarraitzeko indarra. ■

